

Espermaren kalitatea

Giza ugalden arduratzen diren zientzialariak azken hoge urteotan kezkatu daude. Giza espeziearen ugalkortasunak ez du behera egin, baina espermaren kalitateak behera egin du azken berrogeita hamar urte honetan. Espermatozoiden kopurua murrizten ari da etengabe, baina aditu frantsesek beste elementu bat erantsi diote arazoari: espermaren eboluzioa eta kalitatea lurralde batek bestera desberdina da. Rennes-ko zentroan jaso dituzten laginetan esperma-milimetroko 87 milioi espermatozoiden detektatu dituzte, eta Tolosako zentroan

Giza ugalden arduratzen diren zientzialariak kezkatuak daude; izan ere, ugalkortasunak behera egin ez badu ere, espermaren kalitatea gero eta baxuagoa dela uste da.



jasotakoetan 72 milioi besterik ez. Zientzialariak diferentzia hauen zergatiaz ez dute azalpenik eman.

Bestetik, Inserm erakundeak argitaratutako ikerketa baten arabera, 1974-1994 bitartean Paris aldean espermatozoiden kopuruak behera egin du, baina Tolosan, adibidez, beherakadak ez da izan. Estatu Batuetan ere, lurraldeen, arabera desberdintasunak daudela egiaztatuta, baina espermatozoiden kontzentrazioak nabarmen gora egin du 1970. eta 1994. urte-bitartean.

Ebola birusa antzinatean

Ebola birus beldurgarriak 250 pertsona inguru hil zituen iaz Zairen, baina Atenasen K.a. V. mendean 300.000 baino gehiago hil zituen izurriteko bera izan daiteke. Patrick Olson epidemiologo iparramerikarrak eta bere lankideek puntu askotan antz hartu diete bi izurriteei: infekzioa berehala azaldu eta berehala desagertzera, sukar hemorragikoa, hesteetako ultzerak, zotira irunkorra, gaixoa laster hiltzea (gaitza sumatu eta aste-betera), etab. Hori gutxi balitz, gaitzaren eramailetzat hartzen den tximino-espezieak Atenastik hurbil fresko batzuetan irudikatzen da.

Korrika egitea eta kolesterola

Emakume lasterka-riek odolean kolesterol ona sortzen dute. 1.800 kirolarirengan egindako ikerketa batek erakutsi duenez, astean lasterka 64 kilometro baino gehiago egiten duten emakumeek, 16 kilometro baino gutxiago egiten dituztenekin konparatuta, HDL kolesterol gehiago dute; odol-dezilitero bakoitzeko 10 miligramo gehiago, hain zuzen. Dena den, bihotzarentzat eta odol-zirkulazioarentzat HDL kolesterolak abantaila izan arren, zauritzeko eta hilekoan arazoak izateko arriskua dago.

Erretzaileen entzima

Biriketako minbizi-kasu guztien % 80 tabakoak eragindakoa da, baina erretzaile guztiek ez diote arrisku horri berdin erantzuten. Frantziako Inserm erakundeak Simone Benhamou-ren gidaritzapean egindako lan batean tabakoagatik birika-minbiziaren eta entzima baten arteko harremana aztertu da. Minbiziak jotako 130 erretzaile eta minbizirik gabeko beste 160 erretzaile aztertu dira. Egiaztatuta ahal izan



Biriketako minbizi-kasu guztien % 80 tabakoak eragindakoa da, baina erretzaile guztiek ez diote arrisku horri berdin erantzuten.

denez, asko erretzen duten eta arrisku handikoak diren pertsonengan CYP2D6 entzimak lan handia egiten du zigarroaren kea substantzia toxiko bihurtzen.

B hepatitis eta interferona

Alfa interferonak B hepatitis kronikoa duten gaixoak hobetu egiten ditu. Zirrosia izateko probabilitatea txikiagotu egiten da eta denbora luzez bizitzekoa handiagotu. Interferonaz hobera egiten ez duten gaixoek "lamivudine" eta "famciclovir" izeneko sendagaiak har ditzakete.

